

DURDUZATIK DARDARKA

Karlos del Olmo

Euskarazko izenburua: DURDUZAZ ETA DARDARAZ

Egilea: Amélie Nothomb

Itzulpena: Joxan Elozegi

Argitaratzailea: Igela (2003)

Jatorrizko izenburua: Stupeur et Tremblements (1999)

Berriren berri euskal kritikari bat kexu agertu da Euskal Herrian benetako kritikarik ez ei dagoelako, hau da, kritikari (propagandista ote?) dihardutenen arabera, liburu baztergarririk ez dagoelako. Inon ez bide da liburu baten gaineko kritika txarrik agertzen. Baliteke hala jazotzea. Baina ez dirudi hala denik. Euskal Herrian hizkuntza eta kultura normalizaturik baleude, halako egoera bat salatzeke modukoa ez ezik, guztiz tamalgarria ere litzateke. Baina euskal kazeta, irratia, telebista eta aldizkari batzuetan genero —literatura dramatikoak, poesia, kritika bera, biografia, zientzi fikzioa...— batzuen gaineko iruzkinik (edo aiputxorik, sikiera) ere agertzen ez den bitartean, egile eta itzultzaile saiatu batzuk *sancta sanctorum*, *olinpotxo* eta *parnasotxo* guztietatik at dauden artean, hainbat argitalpen ikusezin direla, literatur kritika hutsezko aldizkari espezializatu barik edukitzeke, alegia, egile, itzultzaile eta argitaratzaile guztiak berdintasun egoeran ez dauden arteraino, kritika negatiboez berba egitea baikorregi izatea da. Mingarri ez esatearren. Egia da, propaganda larregi dabil bazterretatik; marketingak, adiskidekeriak eta taldetxoek zabal-zabalik kurrutzen dituzte gure literatur bideak. Bada, halere, kritika txarra baino gauza latzagorik. Askoz ere hilgarriago gertatzen denik: ezereza, aipu (ez on, ez txar) bat bera ez jasotzea, gardena izatea, hau da, inortxo ere ez izatea letren errepublikan, enbaxadorerik ez izatea irakurleen aurrean. Hustasuna. Kanpoko espazio hotz, ilun eta mugagabea, beste izarrak ñirñirka eta harrapaezin ikusteko kondena. Eta kritikan (propagandan?) dihardutenek honako honen moduko liburuen gainean jardun barik, txar iritzitakoen —nork du eskua, bestalde, txartasunaz berba egin ahal izateko?— kritikan jardunez gero, argitaratze ahalegin batzuk ahuntzaren gauerdiko eztula gertatuko liriateke. Tamalez.

Frantsesez argia ikusi eta handik bost urtera —bost baino ez!— Amélie Nothomb-en eleberri hau euskaraturik jasotzea, berez, normalizazioaren izenean eginiko hainbat saio handiguratsu baino askozaz ere eraginkorrago da. Gaur egungo klasiko horietako bat delako, guretzat, ia labatik harako ogia. Argitaletxe xume baina ausart batek plazaratu duelako, beste batzuen baliabiderik izan barik ere. Itzultzaileari azalean bertan dagokion tornua aitortzen diolako. Joxan Elosegiren itzulpenaz gozatzeko aukera dugulako. A, eta idazlea bera itzultzaile-interpretea izan delako. Propaganda hats larregi?

Egileak Frantziako Akademiaren Saria eta internauten Internet Saria jaso izana ezin da adu hutsa izan. Ezin bestela jazo infernura jaisten denean ironia lagun, umorezko egilerik onenen ukitu *marxista* emendaturik. Sistemaren kritikatik ere badu. Eta kultur topeka deritzon herri kirol berria. Japonia eta Europa buruz buru. Europar emakumea eta japoniar emakumea. Ying eta yang, baina, zein da nor? Nor zein?

Arrakasta gorabehera, Nothombek berak dioenez, ezer ez dakiela eta idatzi barik bizitzerik ez duela besterik ez dakien idazlea da bera. Umorezko *nouveau roman*? Rilkek harako poeta gazte hari idatzirikoak idazkuntzara erakarriko autodidakta Nietzsche zalearen ekarria dugu.

Kritikak kritika, protagonistak dioenez, "leihoak izango diren bitartean, bere askatasun poxia izango du lurreko gizaki ttipienak". Irakurle-*san*, *sayonara*!